

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Irura

Aurkibidea

Udalerria: Irura

Sarrera



Tolosaldeako eskualdean dagoen udalerria da. Herri hauekin egiten du muga: Iparraldetik eta ekialdetik, Anoetarekin; iparraldetik eta mendebaldetik, Villabonarekin; eta, hegoadetik Tolosarekin. Populazioaren gehiengoa hirigune nagusian dago bildua eta hiri-batasuna nahikoa trinkoa da. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 1.665
- **Euskaldunak:** %77,09

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **16**
- Pasarteak: **66**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **42**

Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gipuzkoako zuhaizti motzak

Hizlariak

Carmen Ameztoy Querejeta (1921)



Zestoan jaio arren, 3 urte zituenean Irurara etorri zen gurasoak eta bost seniderekin batera eta Etxe Alai hartu zuten bizitoki. Jaio aurretik, aita Filipinetara joan zen nekazari lanera eta handik etortzean modu onean bizitzeko aukera izan zuen familiak. 12 urte zituela, Zaragozara joan ziren denak, Gregorio anaiak medikuntza ikasketak egin behar zituela-eta. Udararen herrira etorri ohi ziren, baina gerra hasitakoan, Zaragozako egoera jasanezina zenez etxera bueltatu ziren. 19 urte arte Tolosako enñantzetan ikasten aritu zen; besteak beste, musika eta pianoa ikasi zituen Mokoroa aitarekin lehenik eta semearekin ondoren. Eskolako koroan ere aritu zen. Musikarako eta pianorako zaletasunak Irurako elizako organista lanetan jarri zuen eta piano irakasle ere izan da herrian urte askoan. Oleoarekin margotzea ere asko atsegin du. Patxi Sarasa Likinianorekin ezkondu eta hiru seme izan zituen.

Maria Luisa Armendariz Laplace (1931-2020)



Irurako kale bakarrean jaio zen. 5 urte ingururekin, ordea, Markinara ihes egin behar izan zuen guraso eta ahizparekin, gerra hasi aurretik aitaren bila etorriko zirenen beldur baitziren. Gerra pasa bitarteko urteak, Markinako baserri batean igaro zituen eta markinarez ikasi zuen. Egoera lasaitu zenean, Irurara bueltatu eta aitona-amonekin bizi izan zen, aita soldadu eraman baitzuten. 16 urterekin, Villabonako Telares lantegian hasi zen lanean, baina neskametzan gehiago irabazten zela-eta, Sacen-eko nagusiaren etxean aritu zen 7 urtez. Gerora, Anoetako Erosle dendan lan egin zuen 25 urtez. Dantzari trebea gazte-gaztetatik, hainbat sari irabazitakoa da baita gerora karta jokoan irabazitakoak ere. Cruz Iraolarekin ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituen.

Miguel Angel Arregi Urretabizkaia (1931)



Juan Felis Arregi zuen aita, Irurakoa; eta Isidora Urretabizkaia ama, Tolosakoa. Biak ere Irurako paper-fabrikako langileak izan ziren eta hantxe bizi izan zen familia osoa lantegiak jarritako etxean. Irurako kaleetan hazi eta hezi zen, tarteka eskolara joanez eta tarteka etxean lagunduz. 14 urte zituela, paper-fabrian hasi zen lanean hau ere. Denbora librea zuenean, liburuak irakurtzea atsegin zuen, baita ezkutuan jasotako sozialismoaren inguruko haiek ere. Federik ez zuenez, elizara joatea baino sagarrak lapurtzea nahiago izaten zuen tripa zorriak baretzeko. Gazte denborako hainbat kontu kontatu dizkigu; maitasunaz, gaixotasunaz, politikaz eta heriotzaz ere mintzatu da.

Jexux Mari Arsuaga Azpillaga (1941)



Ameztotienean jaio eta bertan bizi izan zen 13 urte bete arte. Aita, irurako paper fabrian lanean hasi zenean, etxebizitza jarri zioten familiari Ameztotinearen aldamenen eta hara aldatu zuten bizitokia. Gazte-gaztetan meza laguntzaile izan zen eta etxean ere laguntzen zuen soroko lanetan. Mekaniko izan zuen ofizio, eta halaxe jardun zuten Tolosako Izaskun Manufakturak-en eta Zizurkilgo Endoki-n, besteak beste. Afiziorik handiena, ordea, xaregintza izan du betidanik. Jokutzen ez omen zen oso ona baina oso gustoko kirola zuen eta Irurako azken xaregilea hil aurretik xareak egiten ikasi zuen harengandik. Harrezkero, azoketan, eskoletan eta Martuteneko kartzelan izan da xareak egiten irakasten. Kirol minorizatua izanik, galtzear dagoela uste du. Hala ere, semea hasia da ondorengotza hartzen eta herriko gazteak ere hasi dira xarean jokutzen. 28 urterekin, [Puri Urrestarazu Garmendia](#)rekin ezkondu eta Xare kalean jarri ziren bizitzen. Bi seme-alaba izan ditu.

Maria Luisa Arsuaga Azpillaga (1933)



Irurako Etxe Alai etxean jaio eta bizi izan zen 15 urte arte gero Gure Torrea etxera aldatu baitzuen bizitokia familiak. 12 urterekin neskame lanetan hasi zen eta aldi berean irurako Kontxitarekin gau-eskola jasotzen zuen haren etxean. 20 urte zituenean, zaraizko Cleri hotelean hasi zen lanean 25 urterekin Jose Juaquin Lasa Zugasti irurarrarekin ezkondu zen arte. Lau seme-alaba izan zituen. Jostea izan du afiziorik handiena eta ofizio ere bilakatu zuen, 18 urtez aritu baitzen donostiako Parra dendarako gabardinak egiten.

Xantox Gabarain Urretabizkaia (1930-2015)



Irurako paper fabrikako Etxezarreta etxean jaioa. 4 urte zituela aita galdu zuen eta 9 urterekin Segurako Andreaundieta baserrira joan zen morroi, bizimodua aurrera ateratzearren. Abeltzantzan aritu zen batez ere, 16 urte arte, bizimodu harekin gustura ez zegoela ohartu zen arte. Irurara bueltatu eta Garmendiakoekin aroztegian hasi zen lanean. 22 urte zituela Burgosera joan zen soldaduskara. Infanteria egokitu zitzaion eta oso gustura aritu zen zaldiekin erakustaldiak eginez; motoa, kotxea eta kamioia gidatzeko baimena ere atera zituen bertan zela. Etxera bueltatu zenean, kamioilari gisa aritu zen lanean batera eta bestera. 28 urterekin, Aceros Iruran hasi zen lanean eta kamioia saldu zuen. Inazia Belaunzaran Urruzolarekin ezkondu zen bi urte beranduago eta lau seme-alaba izan zituen. 20 urtez Irurako bake-epailea izan da eta oso gizon maitatua da herrian. Bertsolaritzarako zaletasun handia izan du betidanik, eta bertsolari handiekin bertsotan sarri aritu da, besteak beste, Lazkao Txikirekin, oso laguna zuen-eta.

Ramon Iturbe Odriozola (1935)



Plazan elizaren ondoan zegoen Jauregi baserrian jaio eta hazi zen. Baserritarak zituen gurasoak, Asensio Iturbe aita Irurakoa, eta Anttoni Odriozola errezildarra ama. Haiengandik lana egiten ikasi zuela dio Ramonek eta halaxe egin du bere bizitza osoan zehar; baserrian lehenik eta Irurako Etxezarreta paper-fabrikan ondoren, baita Berrobiko Uranga paper-fabrikan ere. Aukeratzekotan, orde, garbi dauka baserriko lana nahiago duela, lantegian kaiola batean bezala sentitu izan baita. [Mari Karmen Iradi](#)ekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituen. Baserriaren egoeraz eta geroaz hitz egin digu, baita herri kirolez eta pilotaz ere, pilotazale amorratua baita.

Visitacion Larrinaga Arrese-Igor (1920-2017)



1920an jaio zen Irurako plaza ondoan zegoen Ixidroenea etxean. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Zornotzako baserri batekoa. 13 anai-arrebatan hamabigarrena da bera. Ixidroenea ezaguna zen inguruetan, taberna zelako eta telefonoa ere bertan zegoelako. Jende asko izaten zuten beti etxean, baita lo egiten ere. Visitacionek umetatik izan zuen josteko zaletasuna. Tolosan ibili zen ikasten eta jostuna izan da beti, baina etxerako gauzak josten zituen gehienbat. Gurasoen eta anaien gerrako bizipenak ondo gogoratzen ditu. Aita, Ceferino Larrinaga, Irurarako alkate izan zen urte askoan.

Joxe Nazabal Dorronsoro (1934-2015)



Itsasoko Albitxu Ondo baserrian jaioa. Ama Zaldibiakoa zuen eta aita, artzaina, Itsasokoa. Dorronsoro abizena, ordea, Ataundik omen datorkio, aitona hangoa zuen eta. Albitxu Ondo baserria Itsasoko Astigarreta auzoan dago, eta lurrez Itsaso egiten bada ere, Beasaindik hurbilago dago. Soroak ere, gehienak, Beasaingo lurretan zituen orduan. Joxe herri-eskolan ibili zen, Astigarretan, bederatzi urte bete arte. Orduan La Salle-n hasi zen, Beasainen. Hogeita bost urte bete arte baserrian egin zuen lan, eta ondoren fabrika hasi zen lanean, fundizioan. Han urte askoan egin zuen lan, Lazkao Txikirekin batera.

Marimi Ugalde Zabala (1940)



Elduaingo Benta Berrin jaioa, Irurara etorri zen bizitzera 5 urte inguru zituenean. Eldukoa zuen aita, Anjel eta Irurakoa ama, Clara. Amona berriz, Elduko Bikarioetxeko maistra zuen eta harekin ordu mordoa pasa zituen eskolan. Eskolarako zaletasuna txiki-txikitatik izan du Marimik eta amonarengandik jasotakoarekin, oso garbi izan du andereño izateko bidea jarraitu behar zuela, bere ahizpek bezala. Irurako eskolako ikasketak amaitu ondoren, Tolosako enñantzetan jarraitu zuen bidea, azkenik Donostiako irakasle-eskolan majisteritzako karrera bukatzeko. 19 urterekin hasi zen lanean, Aduna, Tolosa, Hernialde eta Irurako eskoletan. 1965ean Andoaingo ikastola sortu zuten eta oso gertutik ezagutu zuen ikastolen sorreraren mugimendua. 1973an Bartzelonara joan senarrak Luis Mari Gurrutxagarekin, jatetxea jarri baitzuten bertan. Hiru semeak bertan haziak izan arren, Marimik, beti izan zuen Irura bihotzean eta 1985ean etxera bueltatu zen betiko. 1991ean, udaletxeko kultura batzordean aritu zen lau urtez. 1995ean, berriz, udaletxeko alkate izendatu zuten eta 16 urte pasa ditu lan horretan. Herriko lehen emakume alkatea izan da eta oso emakume estimatua da herrian, herriaren alde ikaragarritzko lana egin duelako. Herriko txikienak asko maite ditu gainera, horren seinale da 20 urte baino gehiago daramatzala dantza eskolak ematen. Emakume alaia eta prestua; zera esaten diote herritarrek: Arazoa non, Marimi han.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Erromeriak eta San Migeletako karrozak

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Arrese-Igor, Visitacion

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Otegi, Aitziber
- **Erref**: IRU-001/031
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:54:33. **Bukatu**: 00:56:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Jai iluntzeetan kuadrilla bat biltzen zen Visitacionen tabernan eta mutil batek soinua jotzen zuen. Batzokian erromeriak egiten ziren eta San Migeletan karrozetan ateratzeko ohitura handia zegoen. Inguruko herrietatik trenak jartzen zituzten eta jende ugari biltzen zen bertara.

Transkripzioa

- Apustuk-eta izaten al zien tabernan ta?
- Ez.
- Ez?
- Ez, hemen tabernan apustuik-eta ez. Musian-ta ibili, hola, musian-ta ibili. Ta gero bazeon mutil bat soiñuba... nola berez famili guziya soiñu-jotzaillia, ["soiñunekok"] esaten zien, eta mutil horrek'e bazun filarmonika txiki bat. Ta jai gautan, kuadrillak han gaztiak ta gaztiak eta esaten ziyen "Ekar zak, ekar zak soiñuba, ekar zak soiñuba". Ta aixkenian jun ta ekartzen zun. Eta hua soiñu jotzen ta jendia dantzan. Ta bueno...
- Ordun erromerik izaten al zien?
- Bai.
- Bai?
- Festak? Oso haundik gaiñea. Hemen gerra baiño lehen itten zian, batzokiyak denak preparatzen zittun, ze karrozak...! Politt askoak badittugu guk erretratoak! Este... hor albumian ez dago, baiña Modesta ta nik zeak, esto... gurdi... gurdi belarran aurrian, beste neska bat eta ni, basarritar jantzita, e. Herri guziya jazten zan, neska ta mutil. Karrozak, igual lau o bost karroza, denak batzokin preparatzen zian.
- Bai, hemen bertan, ezta, Iruran?
- Bai, bai, bai, bai. Aizu, ordun garai haitan, zea... este... gero're gero're, tranbia-ta zian garaiyan, tranbia espeziala jartzen zuen Andoaindikan Iruraa, ta Tolosatik Iruraa, o Andoaindikan Tolosaa, Iruran pasatzeko. Izugarrizko jendiak izaten zian!
- Eta ze egunetan izaten zan hoi?
- San Migel.
- San Migelak?
- Bai, San Migelak. Uaiñ'e bai, bai, San Mielak izaten [zian].

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Prozesioa Ama Birjinaren jaietan

- **Hizlaria(k)**: Larrinaga Arrese-Igor, Visitacion
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Otegi, Aitziber
- **Erref**: IRU-001/032
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:56:15. **Bukatu**: 00:57:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

- **Laburpena:** Ama Birjina arrosariokoaren egunean prozesioa egiten zen. Anekdotak bat aipatzen du.

Transkripzioa

- Eta gero espezialena izaten zan hurrungo igandia, amabirgiña errosaiyokua izaten zan. Amabirgiña errosaiyokua uain... uain eliza arreglatu in due ta kendu in due. Uain denak dendu ditue amabirgin guztik. Baiño hau, prozesiyua iten zan amabirgin harekin. Eta harek, gaiña, emakume batek bi seme gerran ondo etortzeatikan, alarguna zan, ta bi seme gerratik ondo etortzeatikan soiñoko berriya in zion. Baiño beak bakarrik ezin zun pagatu, ta guk'e lagundu giñon, baiño bahintzat hoi ofrezittu zun. Ta geo soiñeko berriyak in ateatzen zan prozesiyuan. Baiño uain ze pasa da? Amabirgin egunekua izaten zan gonbidauk eta, zeatik San Migel, klaro, igual gehiyenian astian, eta etxetan gonbidau gutxi. Baiño igandia nola baizan amabirgiña errosaiyoko eguna, ta gonbidauk-eta ordun izaten zian. Eta... Baiño uain zer da? Kilometruak-o jarri due igande hortan ta akabo amabirgiña errosaiyokua! Uain kilometruak. Kilometruak o ze esaten die /esateiye/?

- Bai, bai.

- Bai, kilometruak. Aurten, gaiña, Iruran!

- A bai, e?

- Iruran tokatzen da /tokatzea/.

2.2. Neskek prakak janzteak bekatu

- **Hizlaria(k):** Larrinaga Arrese-Igor, Visitacion
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Otegi, Aitziber
- **Erref:** IRU-001/034
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:00:23. **Bukatu:** 01:01:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Neskek ez zuten prakarik jantzen. Bazen Iruran anaiaren prakak jantzita ibiltzen zen neska bat. Apaiza zetorreanean ezkutatu egiten zen.

Transkripzioa

- Neskak galtzaik-eta jazteik bazan?

- Ez.

- Ez, ezta?

- Keba. Bat zan hemen, oaindikan'e bizi da, gero harek pelotari-ta izan zan ta, eta neskak beti plazan jostatzen gu e, o kaniketan o hola, ta hua mutillakin galtzak, anaiyan galtzak, jantzita. Baiño apaiza nola bertan bizi baizan, esaten giñon "Badatorrela apaiza, Don Jose badatorrela". Don Jose esaten giñon ordun apaizai, uain apaizai "zu" esaten diyou /esateiyou/ baiño. Eta "Don Jose badatorrela, Don Jose...". Hoi zan apaiza zahar hua, nola esan dizuet?

- Bai.

- Hua zan. Ta korrika eliza atzea gordetzea juten zan.

- Galtzak jantzita ikusi ezkeren kastigun bat, ezta?

- E... baiño... honbre...

- Errita igual.
- Errita o... nola esaten da, mari-mutilla zala ta... Eskolan'e esaten dizut / esateizut/ ba neskak alde batea ta mutillak bestea, maistra ta maixuba.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Guinea Bissaukoa, Iruran bizi da (101-071/002)

Bere burua aurkezten du Naurrek,. Guinea Bissaukoa da eta Iruran bizi da.

2. Mankanyera, bere ama hizkuntza (101-071/004)

Mankanyera da bere ama hizkuntza. Gurasoekin eta anai-arrebekin hitz egiten du. Baina Guinea Bissaun elkar ulertzeko kriolera erabiltzen dute. Hemen ez dauka norekin hitz egin.

3. Seme-alabekin krioleraz gehienbat (101-071/006)

Hiru urteko alabari krioleraz hitz egiten dio gehiena, baina mankanyeraz ere esaten dizkio hitz batzuk. Semearekin ere krioleraz egiten du.

4. Mankanyera, Guinea Bissaun eta Senegalen (101-071/007)

Mankanyera ez dujende askok hitz egiten Guinea Bissaun, etnia txikia dela dio. Senegalen ere hitz egiten da, gehiago. Hangoekin woloferaz hitz egiten du, mankanyera ez baldin badakite.

5. Senegaldik hona; euskara ikasi zuen lehenengo (101-071/009)

Senegalen bizi izan zen. Bere emaztea dena han ezagutu zuen, eta hona etorri zen, ezkontuta. Euskara ikasi zuen gaztelania baino lehenago. Andoainen ibili zen euskara ikasten, AEKn. Ia sei urte daramatza Euskal Herrian.

6. Euskara eta gaztelania nola ari den ikasten (101-071/010)

Hasieran isilik egoten zen, entzuten. Villabonako EPAn hasi zen euskara ikasten, eta gero Andoainen jarraitu zuen, AEKn. Badauka zer hobetua, baina moldatzen da. Gaztelania ez zuen ikasi, portugesa dakielako Guinea Bissautik. Praktikatzen ikasten du berak.

7. "Koadrilan" integratuta (101-071/011)

"Koadrilan" gustura sentitzen da, baina orokorrean jendea hemen itxiagoa da bere herrialdean baino.

8. Guinea Bissauko gutxi hemen (101-071/012)

Guinea Bissauko beste bi ezagutzen ditu, eta hasieran asko egoten ziren, baina azkenaldian ez da asko egoten haiekin.

9. Guinea Bissauko hizkuntzak (101-071/013)

Guinea Bissauko hizkuntzak. Gehienek krioleraz hitz egiten dute. Etniak aipatzen ditu. Hizkuntza asko galdu dira, krioleraren mesedetan.

10. Dakizkien hizkuntzak (101-071/014)

Dakizkien hizkuntzak aipatzen ditu: Guinea Bissaukoak, Senegalgoak... Portugesa, kriolera, gaztelania, ingelesa, frantsesa... eta euskara.

11. Familia, lagunak eta hizkuntza faltan (101-071/015)

Guinea Bissautik eta Senegaldik lagunak eta familia ematen ditu faltan, eta baita bere hizkuntza ere: mankanyera. Hemen oso gutxi erabiltzen duenez, galtzen ari da. Hemengo lagun afrikarrak Senegal, Mali, Nigeria, Camerun... herrialdeetakoak dira. Lehengusu batekin egiten du mankanyera pixka bat.

12. Gustura bizi da hemen (101-071/016)

Euskal Herritik gustatzen zaiona: jendea jatorra da, eta gustura dago.

13. Neguko hotzarekin, izoztuta (101-071/017)

Ia dena gustatzen zaio Euskal Herritik. Neguan eskuak izozten zaizkio. Hasieran ez zitzaizkion jaki batzuk gustatzen (txanpiñoiak). Patata tortilla egiten du.

14. Etorkina izateari buruz (101-071/018)

Etorkina izateari buruz: ez du pentsamendu txarrik izaten. Aurrera egin behar da beti.

15. Oinarrizko hitzak mankanyeraz (101-071/020)

Oinarrizko hitzak mankanyeraz. Portuges krioleraz bezala esaten dituzte hitz batzuk.

16. Bere gustuko hitza mankanyeraz (101-071/021)

Bere gustuko esaldia, "alde hemendik" mankanyeraz: "tupendi guai".

17. Oinarrizko hitzak woloferaz (101-131/002)

Hiztegia: oinarrizko hitzak woloferaz. Agurrak arabieraz esaten dituzte.

18. Beraien etxean zegoen herriko telefono bakarra (IRU-001/001)

1920an jaio zen Iruran, Ixidroenea etxean. Bere jaiotokia taberna zen eta herriko telefono bakarra beraien etxean zegoen, zentrala baitzen. Telefonoz jasotzen zituzten enkarguak ematera joan behar izaten ziren. 13 senidetan hamabigarrena da. Ama Irurakoa eta aita Zornotzakoa zituen.

19. Eskolan irakasleari laguntzen (IRU-001/002)

Sei urterekin hasi eta 14 urtera arte joaten zen orduan eskolara. Maistra edadetua zuten, eta hari laguntzen aritzen zen.

20. Antzerkia eta poxpolin dantza (IRU-001/003)

Iruran batzokia zegoen eta Visitacion antzerkia egitera joaten zen bertara lagun batekin. Anekdotak bat kontatzen du. Poxpolinez janzten ziren eta dantza egiten zuten. Vilabonara joaten ziren dantza ikastera. Poxpolinen kantu bat aipatzen du.

21. 16 urte zituela gerra hasi eta anaiaren etxera Donostiara (IRU-001/004)

16 urte zituela gerra hasi zen, eta lau anaiak gerrara joan zitzaizkion. Herria hutsik geratu zen. Visitacion eta etxeok anaiaren etxera Donostiara joan ziren. Gerra hasi zen egunean taberna atarian zeudela gertatutako pasadizoa kontatzen du.

22. Gerra denborako bizipenak; Gernikako bonbardaketa (IRU-001/005)

Lau urte pasa zituzten bere anaiek gerratean. Gernikako bonbardaketaren inguruko kontuak kontatzen ditu. Anaiak sukaldari eta motorista lanetan aritu ziren gerratean. Ama irratia entzuten egoten zen haien berri jakiteko. Gerrateko anaiei kontuak kontatzen ditu.

23. Gerran zeuden anaiei berri irratiz soilik (IRU-001/006)

Erreketeen kapitainarekin lagun egin ziren eta haren bidez ondo egon ziren Visitacionen anaiek gerra garaian. Irratiz soilik jakiten zuten anaiei berri, gutunak oso berandu iristen ziren eta.

24. Senarra gerrara 18 urterekin (IRU-001/008)

Visitacionen senarrak gerrara joan behar izan zuen 18 urterekin eta 7 urte pasa behar izan zituen. 25 urterekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituen. 13 iloba eta 4 biloba ditu.

25. Ixidroenea etxearen deskribapena; labaderoa (IRU-001/010)

Etxea haundia zen eta lau senide bizi ziren bertan. Azpian taberna zuten. Baratzea eta behiak zituzten. Gizonak labaderoa egin zieten harriekin baratze ondoan, baina hura egin artean plazara joaten ziren ontzietan arropa hartuta.

26. Errota martxan jarri zutenekoa (IRU-001/011)

Anaiek gerratik bueltatu zirenean, errota martxan jarri zuten elektrizitatearekin. Aitak bazekien errotaren berri, Zornotzan bazuten eta. Errazionamendua zegoen garai hartan (artoarena), eta ogia etxean egiten ikasi zuten. Noaingo irin-lantegi bateko semearekin gertatutakoa azaltzen du.

27. Estraperloko garia (IRU-001/012)

Tabernan apopilo eduki zuten mutil batek ekarri zien errota-harria eta halaxe jarri zuten martxan. Okinak joaten zitzaizkien etxera eta haiei saltzen zieten. Garia estraperloan ekartzen zieten; nola esplikatzen du.

28. Ogia egiten zuten etxean (IRU-001/013)

Okinak erakutsi zien ogia egiten; labea egin zuten anaiek eta dozenaka ogi egiten zituzten. Errotara auzoko jendea eta kanpotarrak joaten zitzaizkien artoa errotan ehotzera.

29. Hiletetan banketeak eman ohi ziren (IRU-001/017)

Neska-mutilak elkarrekin joaten ziren tabernara bokadiloak jatera. Apopiloak izaten zituzten etxean eta hiletetako banketeak ematen zituzten. Kategori ezberdinetako hiletak izaten ziren eta bazkariak ere kategoriaren arabera.

30. Haragia freskeran mantentzen zuten (IRU-001/018)

Arrain freskoa jaten zuten ez zuten izozturik ezagutu. Haragia sukaldetik errotara bitartean zuten freskuran mantentzen zuten.

31. Ixidroenea auzoko taberna bakarra (IRU-001/020)

Auzoko taberna bakarra zen euren, denentzat zabalik egoten zen ez zuten sekula giltzez ixten. Amak hurrei txokolatea jartzen zien eta auzoko umeak askotan zaintzen zituen.

32. Valladolideko "maestrak" eskolan (IRU-001/023)

Eskolan neskak bakarrik ibili ziren eta Valladolideko irakaslea izan zuten. Erdaraz ikasten zuten dena, baina dotrina euskaraz. 3 dotrina ikasi zituzten. Eskolan geografia, geometria, matematika eta abar ikasten zuten.

33. Maiatzeko loreak (IRU-001/024)

Gerra-garaian elizan erdaraz kantatu behar izaten zen. Maiatzeko loreak kanta oso ezaguna zen, eta Visitacionek bazekizkien bi kantu erdaraz, baina apaizari boikota egin zioten eta atzera euskaraz hasi ziren. Maiatzeko loreak ospakizuna zer den azaltzen du.

34. Mariatarren kongregazioa (IRU-001/025)

Mariatarren kongregazioan egon zen eta bertan egin beharreko eginkizunak azaltzen ditu.

35. Jaunartzea zazpi urterekin; arrosarioa (IRU-001/026)

Jaunartzea zazpi urterekin egin zuen. Komunioa hartzera baraurik joaten ziren. Gauean arrosarioa errezatzen zuten.

36. Elizako ospakizunak (IRU-001/028)

Igandero joaten ziren elizara. Ospakizun erlijioso ezberdinak aipatzen ditu.

37. Gabonak etxean (IRU-001/029)

Gabonak etxean (tabernan) ospatzen zituzten, familia giroan. Gabonetako menua azaltzen du. Angulak jaten zituzten egun berezietan (Gabonak, San Jose eguna, inauteriak...). Erregetan opariak izaten ziren; beharrezko gauzak edo jostailuak izaten ziren.

38. Umetako jolasak; karta-jokoan ere ikasi zuen tabernan (IRU-001/030)

Tabernan jolaserako toki bat zuten eta han aritzen ziren anai-arrebak jolasean. Auzoko etxeetara joanda gordeketan, kanika eta tabekin jolasten zuten. Hamar urterako musean ere ikasi zuen tabernako ezagun batekin; aitona eta anaiekin aritzen zen jokoan. Senarrarekin kopa batzuk irabazi zituen gerora ere karta-jokoan.

39. Tolosara josten ikastera (IRU-001/035)

Josten Tolosan ikasi zuen, bizikletan edo trenez joaten zen. 16 urterekin hasi zen.

40. Karea nola egiten den (IRU-003/001)

Orain Altzoko harrobian egiten dute karea. Karea lehen eta orain nola egiten den azaltzen du. Karea egiteko kaliza behar izaten da.

41. Karearen erabilera (IRU-003/002)

Lantegietan karea eskoria egiteko erabiltzen da. Kareak txatarraren zikina kanpora ateratzen du.

42. Aspaldiko karobiak (IRU-003/004)

Garai batean sua erabiltzen zuten karea egiteko eta ondoren soroan erabiltzen zuten. Goierrin karobi gutxi daude. Urnietan badago oraindik karobia izandako zuloa. Buruntza mendian karobi bereziak egiten zituzten, oraindik ere ikusi daitezkeenak.

43. Karea baratzeako zomorroak hiltzeko (IRU-003/005)

Lehen baserritan artoa eta garia ereiten zituztenean, karea zomorroak hiltzeko erabiltzen zuten. Altzoko harrobian karea egiteko harria ateratzen dute. Labe elektrikoak erabiltzen dituzte. Kare gehiegi ez da ona baratzearentzat.

44. Letxera paretak zuritzeko (IRU-003/006)

Karea letxera egiteko ere erabiltzen zen. Letxera karea erabiliz egiten da, ondoren paretak zuritzeko. Igeltseroek erabiltzen zuten. Urtean behin gelak horrela zuritzen ziren, askotan festak baino lehen. Letxera hori pinturaren ordeztu erabiltzen zen eta oso osasuntsua zen. Etxeko kanpoaldea margotzeko ere karea erabiltzen zen. Ahal bazen konpresorea erabiltzen zen.

45. Harrobiko lanak (IRU-003/010)

Urnietako harrobian kaliza ateratzen zuten, oso ona baina karea egiteko Altzokoa hobeagoa da. Langile asko ziren. Batzuk instalazioan, besteak zulatzen eta azkenak takoak egiten.

46. Harrobian leherketak nola prestatzen ziren (IRU-003/011)

Harrobian leherketak nola prestatu eta egiten zituzten azaltzen digu.

47. Segurtasunik gabe harrobian (IRU-003/012)

Gaur egun beste modu batean egiten da harrobiko lana. Istripuak ere gertatzen ziren. Gaur egun segurtasun gehiago dago. Lehen arrisku handia zegoen eta Joxek berak istripua izan zuen.

48. Segurtasun sistema korrika alde egitea zen (IRU-003/013)

Leherketa egin behar zutenean, denak korrika alde egin behar izaten zuten, hori zen segurtasun sistema bakarra.

49. Harriak mandoekin kargatzen (IRU-003/018)

harrobian harriak hondeatzeko makinarekin kargatzen zituzten. Garai batean mandoekin egiten zuten lan hori.

50. 'Lazkao Txiki'ren hizkera berezia (IRU-003/020)

Lazkao Txiki ezagutu zuen ahaide batzuen bitartez. Ezagutu zuenean oraindik ez zen ezaguna. Hizkera berezia erabiltzen zuen.

51. 'Lazkao Txiki' igeltsero lanetan (IRU-003/021)

Lazkao Txiki igeltseroa zen, eta klausurako moja batzuen etxean lanean ibili zeneko anekdota kontatzen du. Beti txiste berri bat zuela prest dio.

52. 'Lazkao Txiki'ren bertsoak paretean (IRU-003/022)

Lazkao Txiki ez zuen sekula haserre ikusi. Lagun batekin enpresa bat jarri zuen eta bertan klariona erabiliz paretetan bertsoak asmatzen zituen.

53. 'Lazkao Txiki'ren laguna izan zen (IRU-003/024)

Lazkao Txiki emakumeekin arrakasta handia zuen. Zaldibian baserria erosi zuen beranduago, eta hortik ateratakoarekin eta bertsoekin irabazitakoarekin bizi izan zen azken urteetan. Gaixorik zegoenean ospitalean bisita egin ziola kontatzen du.

54. Erasunen, 'Lazkao Txiki'rekin (IRU-003/025)

Lazkao Txikirekin Erasunen gertatutako anekdota bat kontatzen du.

55. 'Lazkao Txiki'ren umore ona (IRU-003/026)

Lazkao Txiki ez zuen sekula haserre ikusi, baina jenio txarra zuen. Neskekin oso ausarta omen zen. Jendea broma giroan gerturatzen zitzaion askotan.

56. 'Lazkao Txiki'ren bromak (IRU-003/028)

Lazkao Txikiri jendea bromak egitera gerturatzen zitzaion. Ez zituen gauza tristeak kontatzen.

57. 'Lazkao Txiki'ren lagunak (IRU-004/002)

Txikito de Arruiz deituriko bat ere Lazkao Txikiren laguna zen. Ataunen morroi egondako Bedaioko seme bat ere Lazkao Txikiren lagunik handiena zen. Sebastian bere sozioa zen eta laguna ere.

58. 'Lazkao Txiki'ri gustatzen zitzaion euskara (IRU-004/003)

Lazkao Txikiri ez zitzaion politikaz aritzea gustatzen. Euskara batua ere ez zuen gustuko. Herritako hizkera gustatzen zitzaion.

59. 'Lazkao Txiki'ri Leitzako euskara gustatzen zitzaion (IRU-004/005)

Lazkao Txikik esaten zuenez Leitzan egiten da euskararik hoberena. Iruran oso euskara suabea hitz egiten da ere.

60. Euskara inguruko herrietan (IRU-004/006)

Alegiatik gora euskara aldatzen hasten da. Beste aldetik Asteasutik aurrera ere aldatu egiten da. Lizartzan berriz, Nafarroako estilora hitz egiten da. Euskara desberdinena Matxinbentakoek hitz egiten dute.

61. Gazta nola egiten den (IRU-004/008)

Gazta egiteko behar diren erremintak, osagaiak eta prozesua azaltzen ditu. Azaldutako guztia aitarengandik ikasi omen zuen.

62. Gazta nola egiten zen lehen (IRU-004/009)

Gaur egun gazta beste modu batean egiten da, prentsarekin zapalduz. Gazta egiteko prozesua ez zen luzea. Gatzura kentzeko baldea erabiltzen zuten, eta hondakinak txerrientzat gordetzen zituzten. Keixeta artzainak oraindik ere horrela egiten du gazta.

63. Gazta ketua egiteko (IRU-004/011)

Gazta ketua egiteko, leku itxi batean egur hezearekin sua egiten da eta horrek kolorea ematen dio gaztari. Koloreak ez du ilunegia izan behar.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com